

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1613

AGINDUA, 2023ko martxoaren 23koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez izendatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaietako kideak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez, enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak egiteko deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostu hauetarako: Elektrikaria, Autopsietako laguntzailea, Baliabide Orokorren teknikaria (Bilbao eta Donostia), Baliabide Orokorren teknikaria (Lakua), eta Espetxeko gizarte-langilea.

Hautaketa-prozesu horiek egiteko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduan xedatutakora joko da, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Oinarri orokorren 17. apartatuan ezartzen da Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez izendatuko direla enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaikideak, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela. Halaber, xedatzen da kategoria bakoitzean epaimahaikide berak egongo direla enplegua finkatzeko prozesu berezietan eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan.

Horrenbestez, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.8 artikuluan xedatzen denaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez honako lanpostu hauetarako deitutako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaietako kideak izendatzea:

- Elektrikaria.
- Autopsietako laguntzailea.
- Baliabide Orokorren teknikaria (Bilbao eta Donostia)
- Baliabide Orokorren teknikaria (Lakua)
- Espetxeko gizarte-langilea.

Agindu honen eranskinean dago jasota epaimahaien osaera.

2023ko apirilaren 3a, astelehena

Izendatutako pertsonak osatuko dituzte aipatutako epaimahaiak, salbu eta ezgaitasun, ezintasun edo legezko bateraezintasunen bat, abstentzio-kausaren bat edo ezinbesteko kausaren bat ikusten badu Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak.

Bigarren artikulua.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 23a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

ERANSKINA

1.– Epaimahaia: Elektrikaria, Baliabide Orokorren teknikaria (Bilbao eta Donostia) eta Baliabide Orokorren teknikaria (Lakua), enplegua finkatzeko salbuespenetzko prozesuak.

Epaimahaiburua	Titularra	Jesús Valcarlos Illarregui
	Ordezkoa	Ignacio Basáñez Alfonso
Lehenengo bokala	Titularra	Oihana Amundarain Fernández
	Ordezkoa	Oscar Javier Oleaga Zabarte
Bigarren bokala	Titularra	José Luís Coca Gutiérrez
	Ordezkoa	Joseba Miren Arocena Fernández
Hirugarren bokala	Titularra	César Díez Fernández
	Ordezkoa	Ana Isabel Fortea Pereda
Idazkaria	Titularra	Gemma Jauregui Beldarrain
	Ordezkoa	María Ángeles González Echevarria

2.– Epaimahaia: Autopsietako laguntzailearen enplegua finkatzeko salbuespenetzko prozesua.

Epaimahaiburua	Titularra	Inmaculada García Robles
	Ordezkoa	Enrique Ulibarrena Bellido
Lehenengo bokala	Titularra	Jon Iñaki Álvarez Uriarte
	Ordezkoa	Alberto Apaolaza Sáez de Viteri
Bigarren bokala	Titularra	Rubén Sevillano Mateos
	Ordezkoa	Agurtzane Manrique Alonso
Hirugarren bokala	Titularra	Ainara Sudupe Moreno
	Ordezkoa	Julia María Lamas Ruiz
Idazkaria	Titularra	Jon Jagoba Atxutegi Altuna
	Ordezkoa	Izaskun Uriarte Abona

3.– Epaimahaia: Espetxeko gizarte-langilearen enplegua finkatzeko salbuespenetzko prozesua.

Epaimahaiburua	Titularra	José Carlos Merino Álvarez de Eulate
	Ordezkoa	Luís Ángel Agirre Muxika
Lehenengo bokala	Titularra	M. Ángeles EliceGUI González
	Ordezkoa	Pablo María Martínez Larburu
Bigarren bokala	Titularra	M. Remedios Cadenas Fernández
	Ordezkoa	Jesús María Guerrero Guecho
Hirugarren bokala	Titularra	María Patrocinio Hidalgo Borbujo
	Ordezkoa	Carmen Guijarro Santamaría
Idazkaria	Titularra	Ramón Andrinua Lazkano
	Ordezkoa	Iñigo Cortázar Ibáñez